


BALIOZKO PROPOSAMENA

Atal honetan, gure zerbitzua eta gure produktua definituko dugu. Lehenik, produktuarekin dugun helburua eta gizartean dugun helburua azalduko dizkizuegu. Horrez gain, gure produktuaren inguruan eduki ditugun ideiak eta proposamen guztiak azalduko ditugu hemen. Eta azkenik, gure produktuaren erabilera, nolakoa izango den, zer behar asetzen dituen... argituko dizuegu.



Gaur egungo gizartean, hainbat produktu beharrezkoak dira egunerokotasunean. Adibidez, gaur egun edozein pertsona elikatzeko ezinbesteko tresna bat zartagina da. Guk proposatzen dugun produktua zartagin portatil bat da, etxetik atera eta edozein lekutan erabili daiteken zartagin bat. Guk pentsatutako produktuak etxetresna honen erabilera handitu eta hobetu egiten du, eramangarri izatera lortu arte, eta etxetresna honek, zartagin portatilak, eduki al dituen arriskuak murrizten ditu.

Beste aldetik, zartagin portatila eramateaz gain, hainbat elikagai olioia, gatza... bakoitzak berea eraman beharko luke. Sortzen diren hondakin pilo horrekin, bakoitzak jakin beharko luke zer egin, adibidez, poltsa batean gorde gero botatzeko. Gainera, etxetresna izatetik hainbat esparrutan erabili daiteken produktua izatera eraman dugu, adibidez, hemen Euskal Herrian hainbat mendizalek faltan botatzen dute mendira joatean momentuan egindako janaria edukitzea, eta gure zartagin portatilaren ondorioz, beraiek behar hori asetzeko aukera izango dute.

Gure produktua, hau da, zartagin portatilak, aurrez existitzen ez diren beharrak asetzen ditu, gu izan garelako produktu hau lehen aldiz egiten saiatu

garenak. Zartagin batek dituen abantailak hobetzen ditu, zehazki, bere erabilera hobetzen du, hainbat jendearen bizitzak erretzen dituelako, adibidez, mendira joateko orduan, mendizaleek momentuan egindako janaria edukiko luketelako. Bezeroari prezio handiago batean eskainiko diogu gure produktua, zartagin normal batek baino aukera gehiago dituelako hainbat lekutara eramateko orduan, eta funtzionamendua guztiz desberdina delako zartagin normal batekin konparatuz.

Gure zartagin portatilarekin hasteko, aluminio galdatuaz egina izango da, eta erabili ondoren, hasieran bezala geratzeko, hau da, ez da elikagairen arrastrorik geratuko, garbi-garbi geratuko da, ondoren motxilan ez uzteko usainik . Gainera, gure produktua, zartagin portatil bat izanda, bere kolorea guztiz beltza izango da, motxilan gordetzeko bere funda bezalakoa. Edozein lekutara eramateko modukoa egingo dugu, hau da, bere tamaina ez da oso handia izango eta bere forma karratua (15cm x 15cm eta altuera 4cm) izango da, elikagaiak egiteko garaian, espazio gehiago dagoelako. Horrez gain, zartagin portatilak funtzionatzeko plaka txiki (12cm x 12cm) bat edukiko du, beroa ematen diona, plakaren bidez, entxufe baten erabileraren ondorioz funtzionatuko duena. Gainera, plaka martxan jarzteko botoi bat edukiko du zartaginaren alboan. Ondoren, elikagaiak egitean eta motxilan sartzerako orduan ez usaintzeko eta ez zikintzeko, fundak trapu bat edukiko du zartagina garbitzeko. Bukatzeko, gure zartagin portatilak ez du edukiko kirtenik erabilgarrigoa izateko, eta bi eskuleku txiki jarriko dizkiogu bi aldeetan, janaria egiten gauden bitartean, gu ez erretzeko.

Laburbilduz, gure helburu nagusia, Euskal Herriko hainbat mendizalek faltan botatzen duten momentuan, egindako janaria edukitzea da. Beraz, zartagin portatil honekin mendizaleek momentuan egindako janaria egin dezaten erraztasuna ematea da gure helburua. Gainera, gure inguruan ez dago horrelako zerbitzurik ezta horrelako produkturik martxan, horregatik, bezeroek guregana jo beharko lukete gure produktuaz ondo informatzeko.

